Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

2557

AGINDUA, 2010eko martxoaren 29koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Ordiziako (Gipuzkoa) «Fundación Goilan» Fundazioaren estatutuetako 5. artikuluaren aldaketa onartu eta inskribatzeko dena.

Goilan Fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatzeari buruzko espedientea ikusi eta aztertuta.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2009ko abenduaren 21ean Juan Domingo Gaztañagak –Ordiziako Goilan Fundazioaren izenean eta ordez- aurkeztutako idazkia jaso da Justizia eta Herri Administrazio Saileko Erregistroan sarrera egin zaio.

Eskabidearekin batera eskritura publikoaren kopia baimendua aurkeztu da, zein José Luis Pérez Garmendia jaunak eman baitu2009ko abenduaren 14an, Goilan Fundazioaren ordez, Ordiziako (Gipuzkoa) Ignacio Pagola Villar notarioaren aurrean (protokolo zenbakia: 1.612. zenbakia).

Eskritura publiko horri 2009ko azaroaren 18an Patronatuak egindako bileraren akta-ziurtagiria itsasten zaio, zein 2009ko azaroaren 20an eman baitzuen Ordizian (Gipuzkoa) Patronatuko idazkari Juan Mendizábal Goiburuk, lehendakari José Luis Pérez Garmendiaren oniritziarekin. Fundazioaren helbide soziala aldatzea erabaki zen bilera horretan.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko zerbitzu teknikoek aztertu zuten espedientea, eta hainbat akats atzeman zituzten. Horregatik, akats horiek zuzentzeko eskatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko aholkulari juridikoak, 2010eko otsailaren 5eko idazki baten bitartez.

Hirugarrena.– 2010eko martxoaren 2an –aurreko eskabidean adierazitako akatsak zuzentze aldera– zuzenketa-eskritura publikoaren kopia bakoitia eta kopia baimendua jaso ziren Justizia eta Herri Administrazio Sailean. Kopia baimendua 2010eko otsailaren 25ean eman zen Ignacio Pagola Villar notarioaren aurrean (protokolo zenbakia: 263).

Laugarrena.– Eskritura publiko horretan honako hauek azaltzen dira:

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

2557

ORDEN de 29 de marzo de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se aprueba e inscribe la modificación del artículo 5 (domicilio social) de los estatutos de la «Fundación Goilan» de Ordizia (Gipuzkoa).

Visto y examinado el expediente en el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la modificación de los Estatutos de la «Fundación Goilan»

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– El 21 de diciembre de 2009 ha tenido entrada en el Registro del Departamento de Justicia y Administración Pública, escrito presentado por don Juan Domingo Gaztañaga, actuando en nombre y representación de la «Fundación Goilan», de Ordizia.

Junto a la solicitud se ha presentado copia autorizada de la Escritura pública otorgada el 14 de diciembre de 2009 por don José Luis Pérez Garmendia, en representación de la Fundación Goilan, ante el Notario de Ordizia (Gipuzkoa), don Ignacio Pagola Villar, número 1.612 de su protocolo.

La referenciada Escritura pública incorpora Certificación expedida en Ordizia (Gipuzkoa) el 20 de noviembre de 2009, por don Juan Mendizábal Goiburu, Secretario del Patronato, con el visto bueno de su Presidente, don José Luis Pérez Garmendia, del acta de la reunión del Patronato celebrada el 18 de noviembre de 2009, en la que se acuerda el cambio del domicilio social de la Fundación.

Segundo.– El expediente fue examinado por los Servicios Técnicos del Registro de Fundaciones del País Vasco, detectándose determinados defectos, cuya subsanación fue requerida mediante escrito de fecha 5 de febrero de 2010 de la Asesora Jurídica del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– El 2 de marzo de 2010, y a fin de subsanar los defectos señalados a la anterior solicitud, ha tenido entrada en el Departamento de Justicia y Administración Pública, copia simple y copia autorizada de la Escritura pública subsanatoria, otorgada el 25 de febrero de 2010, ante el Notario de Ordizia, don Ignacio Pagola Villar, número 263 de su protocolo.

Cuarto.– La Escritura Pública incorpora la siguiente documentación:

2010eko otsailaren 17an Ordizian (Gipuzkoa) Fundazioaren Patronatuko idazkari Juan Mendizábal Goiburuk –lehendakari José Luis Pérez Garmendiaren oniritziarekin– emandako ziurtagiria, Patronatuak 2009ko azaroaren 18an egindako bileraren aktarena. Bilera horretan, besteak beste, Estatu Sozialetako 5. artikulua –Fundazioaren helbide sozialari buruzkoa– aldatzeko erabakia hartu zen.

Fundazio-estatutuetako 5. artikulu osoaren idazketa berri bat, Fundazioaren helburuak betetzen direla eta fundatzaileen debekurik ez dagoela jasotzen da ziurtagirian.

EAEko Fundazioen Erregistroko Araudiaren 34. artikuluan jasotako gora-beherak ditu bere baitan aurkeztutako ziurtagiriak. Ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuz onartu zen Araudia, honen aurretik aipatutako errekerimenduan eskatutako moduan.

Bosgarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistro, Aholkularitza eta Kontrol Unitateko zerbitzu teknikoek aztertu dute espedientea eta, ondoren, ebazpen-proposamena egin dute.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio fundazioaren estatutuen aldaketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legeko 40. artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3. artikuluan; eta, Lehendakariak 2009ko maiatzaren 8an Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko eman zuen 4/2009 Dekretuaren 9.1.e artikuluan.

Bigarrena.– Estatutuen aldaketa onartzeko eta aldaketa hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko espedienteari funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan eskatutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduaren 44. artikuluan eskatutakoak. Azken erregelamendu hori ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren bidez onartu zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legeko 31. artikuluan ezarritako araudian jasotakoa betez, estatutuen aldaketak ez baditu Fundazioaren helburuak aldatzen, eta fundatzaileak ez badu beren-beregi debekurik jartzen, Fundazioaren helburuei eutsi egiten zaiela ulertuko da, Babeslaritzaren Aholkularitza Batzorde Teknikoak 2009ko irailaren 10eko bileran ezarritako

Certificación expedida en Ordizia (Gipuzkoa) el 17 de febrero de 2010, por don Juan Mendizábal Goiburu, Secretario del Patronato de la Fundación, con el visto bueno del Presidente don José Luis Pérez Garmendia, del acta de la reunión del Patronato celebrada el 18 de noviembre de 2009 en la que se adoptaron, entre otros, el acuerdo de modificar el artículo 5 de los Estatutos Sociales relativo al domicilio social.

En la propia Certificación se recoge la nueva redacción íntegra del artículo 5 de los Estatutos Fundacionales, así como que se respeta el fin fundacional y no existe prohibición alguna de los fundadores.

La Certificación aportada incluye las circunstancias contenidas en el artículo 34 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio, tal y como se solicitaba en el requerimiento anteriormente citado.

Quinto.– El expediente ha sido examinado por los Servicios Técnicos de la Unidad de Registro, Asesoramiento y Control de Fundaciones del País Vasco que, a su vista, han elevado propuesta de resolución.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública dictar, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de modificación estatutaria, en virtud del artículos 40 de la Ley de Fundaciones del País Vasco, el artículo 3 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco y el artículo 9.1.e) del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Segundo.– Al presente expediente de aprobación de modificación estatutaria y ulterior inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos previstos en el artículo 31 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, así como en el artículo 44 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Respecto del cumplimiento de la previsión normativa establecida en el artículo 31 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, cabe indicar que salvo que la modificación estatutaria implique la modificación de los fines de la Fundación y siempre que no conste prohibición expresa al respecto por parte del Fundador, de acuerdo con los nuevos criterios establecidos por la Comisión Técnica Asesora

irizpide berrien arabera, eta ez da beharrezkoa izango Babeslaritzaren aldez aurretiko onarpena, aipatutako artikuluko 4. zenbakian adierazitakoa hain zuzen ere. Hori horrela da ezen, uste baita, debekurik ez egotea segurtasun eta argitasun juridikoko arrazoiengatik baino ezin dela ezarri fundazioaren negozioa gauzatzerakoan.

Aipatu artikuluak eta aplikagarriak diren gainerako arauak ikusita, hona hemen

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak

EBATZI DU:

Lehenengoa.– «Fundación Goilan» Fundazioaren estatutuetako 5. artikuluaren aldaketa onartzea.

Bigarrena.– Fundazioaren estatutuen aldaketa hori inskribatzeko agintzea Agindu honen datarekin, Fundazioaren helbidea soziala aldatzeko eta, ondorioz, estatutuetako artikulua aldatzeko eskritura publikoan ezarritakoaren arabera, zein 2009ko abenduaren 14an eman baitzuen zuen –Goilan Fundazioaren izenean eta ordez– José Luis Pérez Garmendiak, Ordiziako (Gipuzkoa) Ignacio Pagola Villar notarioaren urrean (protokolo zenbakia: 1.612). Eskritura publiko hori zuzendu egin zen, notario beraren aurrean, 2010eko otsailaren 25an egindako eskritura publikoaz (Protokolo zenbakia: 263).

Inskripzio honen ondoren Fundazioaren helbide sozialak Ordizian (Gipuzkoa) jarraituko du, La Granja Auzoko z/g-an.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 29a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

del Protectorado en la reunión de 10 de septiembre de 2009, se presumirá que se respeta el fin fundacional, no siendo necesaria la aprobación previa del Protectorado a que se refiere el n.º 4 del citado artículo. Todo ello porque se entiende que la no existencia de prohibición en principio solo puede establecerse, por razones de seguridad y claridad jurídica, en la formalización del negocio fundacional.

Vistos los preceptos citados y demás normas de general aplicación.

La Consejera de Justicia y Administración Pública

RESUELVE:

Primero.– Aprobar la modificación del artículo 5 (domicilio) de los Estatutos de la «Fundación Goilan».

Segundo.– Ordenar la inscripción de dicha modificación estatutaria de la Fundación, con la fecha de la presente Orden, de acuerdo con lo establecido en la Escritura pública de traslado de domicilio social y consiguiente modificación de artículo estatutario otorgada 14 de diciembre de 2009 por don José Luis Pérez Garmendia, en representación de la Fundación Goilan, ante el Notario de Ordizia (Gipuzkoa), don Ignacio Pagola Villar, número 1.612 de su protocolo. Escritura subsanada por la Escritura Pública otorgada el 25 de febrero de 2010, ante el mismo Notario, número 263 de su protocolo.

De esta inscripción, el domicilio de la Fundación pasa a situarse en el mismo término municipal, es decir, Ordizia (Gipuzkoa), en el Barrio La Granja s/n.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de marzo de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.